



LEGE LEHORAREN INGURUAN HAINBAT HAUSNARKETA



2011ko urtarrilaren 2tik aurrera, espainiar estatuan debekatua dago tabernetan eta bestelako tokietan tabakoa erretzea. Lege hau dela eta, seguru pertsona askori burura etorri zaiola antzinako "lege lehorra", estatu ezberdinetan ezarria izan dena. Lege lehorra hainbat estatuk alkoholaren fabrikazioa, egitea, inportazioa, esportazioa eta salerosketa debekatzen duen legea da. Ia beti, alkoholaren kontsumoa debekatzean, hain hedatua egonik, galarazpen honek merkatu beltza sustatu du, alkohola ilegalki sortuz eta prezio altuetan salduz.

Baina, hara ze ustekabea! Lege lehorra ez omen da hain aintzineko gauza. Abenduan irakurri genezakeen hainbat egunkaritan, Irakeko lehendakari izandako Şadam Husseinen garaian onartutako lege bat, "82 legea" hain zuzen ere, berreskuratu dutela gaur egun, hau da, legea aplikatzen hasi direla. Taberna eta lokal ezberdinetan, armada sartu eta jendea kaleratzen hasi zen, jabeei edari alkoholdunak saltzeko lizentziarik ez zutela esanez. Baina estatu batetik bestera asko aldatzen da lege honen izaera.

Historian ezagutu den debekurik garrantzitsu eta ezagunena Estatu Batuetan eman zen. Debeku hau Estatu Batuetako konstituzioari XVIII. Zuzenketa bezala ezagutzen da. 1920. hamarkadan, gobernua guztiz debekatu zuen alkohola. Honen ondorioz, alkohola edaten zutenek ezkutuan edaten zuten, eta mafiak alkoholaren banaketaren kontrola bere gain hartu zuen. Lege honek 1933 arte iraun zuen, baina bertan behera uztea erabaki zuten legea ezartzeko zeuden arrazoiak (delinkuentzia eta alkoholismo arazoak alegia) konpondu ez zirelako.

Gaur egun, herrialde musulman askotan ere alkohola debekatzen da, Koranean alkoholaren debekua agertzen baita. Hala ere, herrialde eta garaiaren arabera, aldeketak handiak daude leku batetik bestera. Saudi Arabiak, adibidez, alkoholaren ekoizpena, inportazioa eta kontsumoa debekatzen du, debeku hau bortxatzen dutenei zigor gogorrak ezartzen dielarik, kartzelan asteak edo hilabeteak pasatzea eta baliteke ere zartadak jasotzea. Kuwaiten ere debekatua dago alkohola kontsumitzea, baina zartadak ez dira jasotzen, bai ordea kartzela zigorrak. Qatarrek inportazioa debekatzen du, eta mozkortzen direnak gartzelarekin edo erbesteratzearekin zigortzen ditu. Hala ere, zenbait hoteletako taberna eta jatetxeetan alkohola lortu daiteke, eta kanpoko atzeritarrek alkohola eskuratu dezakete baimen-sistema bati esker.

Beste zenbait herrialde musulman edo arabiarretan, Egipto, Şiria, Jordania eta Turkian bezala, ez dago alkoholarekiko debekurik eta bai kontsumoa baita ekoizpena ere legala da, baldin eta erosi edota kontsumituko duen pertsonak hau egiteko adin legala duen. Turkian adibidez, edari alkoholdunen salmenta 24 orduz debekatua dago hauteskunde orokorretan. Ramadan garaian ere, baraualdian alkoholik ez da kontsumitzen.

Alkoholaren gainean badira ere debeku partzialak dituzten herrialdeak. Txile, Kolonbia, Ekuador, El Salvador, Peru, Uruguay eta Venezuelan debeku hauek estatu mailako hauteskunde garaitan ematen dira, esaterako lehendakaria edo errepublikaren kongresistak, alkateak edo eskualdeko-lehendakariak aukeratu behar direnean. Arua hautaketa baino 48 ordu lehenago aplikatzen da, eta hau pasa eta 24 orduz mantentzen da. Denbora honetan ezin da leku publikoetan ez alkoholik saldu ezta alkoholik edan ere.

Gurera etorri, espainiar estatuan arautze autonomiko ezberdinak aurkitzen ditugu. Hauek salmentarako ordutegiak eta alkohola kontsumitzeko lekuak mugatzen dituzte, eta gazteen artean alkoholak sortzen dituen kalteak murrizteko helburua dute. Alkohola legekotzat jotzen denez lurralde osoan, lege hauek, autonomia-erkidegoen arabera, hiru modutan jarduten dute: batetik, adingabeei edari alkoholdunen salmenta debekatu; bestetik, gaueko hamarretatik aurrera edari alkoholdunen salmenta debekatu supermerkatuetan eta gisa horretako dendetan; eta azkenik, bide publikoan edari alkoholdunen kontsumoa debekatu, honetarako baimena duten taberna eta jatetxeen terrazetan izan ezik. Zenbait hirietan ere, udaletxeek honetarako prestatutako leku bereziak dituzte.

Argi dago jendea babesteko legeak egin behar direla, batez ere adingabe edota egoera ahulean dauden pertsonen ari garenean. Baina legea edozein dela ere, kontuan hartu behar dugu legea betetzen den edo ez, eta, garrantzitsuago oraindik, legea betetzen ez denean zer nolako ondorioak dauden. Azken finean, gure ekintzek ondorioz ez badituzte, zertarako egin kasu legeari? Debekuaren orde, ez al genuke hezigarriagoa den eredu baten aldeko apustua egin beharko?

